



3

TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRETERIAKO UDALA

Giza Baliabideak

Erreterriako Udaleko 2024rako lanpostuen zerrenda eta langileen plantila.

Udalbatzak, 2023ko abenduaren 5ean eginiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Udalaren 2024ko aurrekontu orokorrari, bere langile-plantillarekin, baita Erreterria Musikal udal patronatuarena ere.

Jendaurrean egondako garaian inork ez duenez erreklamaziorik egin, behin betikotasunez onartuta dago.

Beraz, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 127. artikuluan eta abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legeak 45.3 artikuluan jasotakoaren arabera, 2024rako Erreterriako Udaleko lanpostu-zerrenda eta langile-plantila argitaratzen dira.

I eta II eranskinetan jasotzen dira 2024rako lanpostuen zerrendan eta langile-plantilan 2023. urtearekiko eginiko aldaketak.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsio jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtsio, dagokion Administrazio Auzietarako Auzitegian, bi hilabeteko epean, akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik, berraztertzeke errekurtsioa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Erreterria, 2024ko urtarrilaren 9a.—Alazne Korta Zulaika, Antolaketa ordezkaria. (100)

I. ERANSKINA

LANPOSTUEN ZERRENDA (2024KO ALDAKETAK)

2024rako Lanpostuen Zerrendan 2023. urtearekiko eginiko aldaketak (2023-02-20, 2023-03-16, 2023-06-02 eta 2023-08-31ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAK) ondorengoak izan dira:

* Orokorra.

— Eguneratu dira berriazko osagarriaren zenbatekoak lanpostu guztietan.

— Tokiko Gobernu Batzarrak 2023-05-24an onartutako organigrama orokorraren arabera antolatu dira lanpostuak.

* Lanpostu berriak edota dotazioen sorrera.

— Administraria: lanpostuaren dotazio berri bat sortu (2406.4).

— Informazio eta tramitazio agentea (2606.13): lanpostu honen dotazio berria sortu da.

— Dirubilletako administraria (3044.5): lanpostu horren dotazio berria sortu da.

— Kulturako administraria (4115.4): lanpostuaren dotazio berri bat sortu da.

— Agiritegiko administraria (4124.): lanpostu honen dotazio berria sortu da.

— Lekuonako liburutegiko teknikari laguntzailea (4139.11, 4139.12): lanpostu honen bi dotazio berri sortu dira.

— Gizarte Zerbitzuetako administraria (6016.8): lanpostu honen dotazio berria sortu da.

— Berdintasun teknikaria (6302.2): lanpostuaren dotazio berri bat sortu da.

— Traf./Garr./HB administraria (7304.3, 7304.4, 7304.5): lanpostu honen hiru dotazio berri sortu dira.

— Hirigintza-zaintzarako eta trafikorako arkitekto teknikoa (7306.1): lanpostu berria sortu da.

* Lanpostuen edota dotazioen ezabaketa.

— Administraria (2401): lanpostua ezabatu egingo da hutsik gelditzen denean.

— Dirubilletako administrari laguntzailea (3042.2): postuko dotazio hori kendu egingo da hutsik gelditzen denean.

— Agiritegiko administrari laguntzailea (4122.1): lanpostu hau kendu egingo da hutsik gelditzen denean.

— Hirigintza, Ingurumena eta Jasangarritasuneko administrari laguntzailea (5154.2): lanpostua ezabatu egingo da hutsik geratzen denean.

— Garbitzailea (5257.4): lanpostua ezabatu egin da.

— Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailea (6012.1): dotazio hau epe motzean hutsik geratuko dela aurreikusten da eta une horretan ezabatu egingo da.

— Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailea (6012.4): lanpostu hau ezabatu egingo da bere ordez sortutako administrari lanpostua betetzen denean (6016.8).

— Traf./Garr./HB administrari laguntzailea (7302.2): dotazio hau ezabatu egin da.

— Traf./Garr./HB administrari laguntzailea (7302.1, 7302.3): bi dotazio hauek epe motzean hutsik geratuko direla aurreikusten da eta une horretan ezabatu egingo dira.

— Traf./Garr./HB administrari laguntzailea (7302.4): dotazio hau behin-behinekotasunez mantentzen da. Bere ordeztan, administrari lanpostuaren dotazio berri bat sortu da (7304.5). Azken dotazio hau betetzen denean, laguntzaile lanpostua ezabatuta geldituko da.

— Mugikortasuneko eta hirigintza zaintzako teknikari lanpostuak (7305.1): lanpostua ezabatuta geratuko da 7306.1 lanpostu berria betetzen denean.

* Ezaugarriak aldatu zaizkien lanpostuak edota dotazioak.

— Idazkari orokorra (2100.1): lanpostuaren berariazko osagarria murriztu da.

— Aholkulari juridikoa (2305): lanpostuari dedikazio berezia ezarri zaio, berariazko osagarria aldatuz.

— Informatika teknikari espezialista (2608): lanpostu hau IKT departamentura atxikitzen da (lehen Informazio Gizartea departamentuan).

— Informatikako teknikari espezialistak (2502.1, 2502.3, 2503.1, 6015.1 eta 2608.1): lanpostu horiek B taldean birsailkatzen dira (orain arte C1), eta, beraz, talde berriari dagozkion oinarrizko ordainsariak ematen zaizkie. Lanpostuaren eginkizunak eta betekizunak aldatzen ez badira ere, bi lanpostu berri sortzea erabaki da: 2504 kodea, 4 dotazioekin eta 2505 kodea, dotazio batekin (azken hau dedikazio berezia duelako bereizten da).

— Kultur-dinamizatzaile arduraduna (4113.1): lanpostuaren berariazko osagarria aldatu da, dedikazio bereziaren portzentaia %20ra igo ondoren (disponibilitatea 3 eta lanaldi luzatua 3).

— Aholkulari juridikoa (5155.1): lanpostuari %15eko dedikazio berezia ezartzen zaio (disponibilitatea 2 eta lanaldi luzatua 3).

— Delineatzailea (5111.1, 5111.2): lanpostua B taldean birsailkatzen da (orain arte C1); beraz, talde berriari dagozkion oinarrizko ordainsariak ematen zaizkie. Lanpostuaren funtzioak eta baldintzak aldatzen ez diren arren, 5402 kodea duen lanpostu berri bat sortzea erabaki da, 2 dotazioekin.

— Uretako zerbitziburua (5302): lanpostuaren berariazko osagarria jeitsi egiten da, ezarrita duen dedikazio berezia %5era jeisten delako (disponibilitatea 2 eta lanaldi luzatua 1).

— Ofizial iturgina (5231.1, 5231.2, 5231.4): lanpostuaren berariazko osagarria jeisten da, dedikazio berezia kendu ondoren.

— Brigadako ofiziala (5252), gidaria (5254), Brigadako arduraduna (5305): lanpostu horietako dotazio guztietan, C gidabaimenaz gain, betekizun gisa, gidarien gaitasun profesionalaren ziurtagiria (CAP) jaso da, uztailaren 20ko 1032/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

— Berdintasuneko administraria (6202.1): lanpostuari izena aldatu zaio (lehen Kultur Aniztasuneko/Berdintasuneko administraria).

* Denboraldi baterako lanpostuen zerrenda:

— Etxeetako laguntzailea (3.6 eta 3.8): bi dotazio hauek ezabatu egin dira.

II. ERANSKINA

2024rako langileen plantilan 2023. urtearekiko eginiko aldaketak (2023-02-20 eta 2023-06-02ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAK) ondorengoak izan dira:

A) Plazen sorrera:

1. Funtzionarioak:

— 8 administrari, C1 sailkapen taldekoak eta Administrazio Orokorreko eskalakoak, Administrari azpieskalakoak.

— Arkitekto tekniko bat, A2 sailkapen taldekoa eta Administrazio Bereziko eskalakoa, azpieskala Teknikokoa eta Erdi Mailako Teknikarien klasekoa.

— Erdi mailako tekniko bat, A2 sailkapen taldekoa eta Administrazio Bereziko eskalakoa, Zerbitzu Berezietako azpieskalakoa eta Betebehar Bereziak dituzten lanpostuen klasekoa.

— 5 laguntzaile tekniko, B sailkapen taldekoak eta Administrazio Bereziko eskalakoak, azpieskala Teknikoa eta Teknikari Laguntzaileen klasekoak.

— 2 laguntzaile tekniko, B sailkapen taldekoak eta Administrazio Bereziko eskalakoak, azpieskala Teknikoa eta Teknikari Laguntzaileen klasekoak.

— 3 laguntzaile tekniko, C1 sailkapen taldekoak eta Administrazio Bereziko eskalakoak, azpieskala Teknikoa eta Teknikari Laguntzaileen klasekoak.

2. Aldi baterako langileak:

— Alkatetzako gabinete burua, 2023-06-23ko udalbatzarraren akordioaren baitan.

B) Plazen ezabaketa:

1. Funtzionarioak:

— Administrari laguntzaile bat, C2 sailkapen taldekoa eta Administrazio Orokorreko eskalakoa, Laguntzailea azpieskalakoa.

C) Ondoko lanpostuak iraungitzea deitzen dira:

1. Funtzionarioak:

— Administrari bat, C1 sailkapen taldekoa eta Administrazio Orokorreko eskalakoa, azpieskala Administratiboa.

— 8 administrari laguntzaile, C2 sailkapen taldekoak eta Administrazio Orokorreko eskalakoak, Laguntzailea azpieskalakoak.

— Erdi mailako teknikari bat, A2 sailkapen taldekoa eta Administrazio Bereziko eskalakoa, azpieskala Teknikoa eta Erdi mailako Teknikarien klasekoa.

— 5 laguntzaile tekniko, C1 sailkapen taldekoak eta Administrazio Bereziko eskalakoak, azpieskala Teknikoa eta Teknikari Laguntzaileen klasekoak.

— 2 laguntzaile tekniko, C1 sailkapen taldekoak eta Administrazio Bereziko eskalakoak, azpieskala Teknikoa eta Teknikari Laguntzaileen klasekoak.

— Laguntzaile tekniko bat, C1 sailkapen taldekoa eta Administrazio Bereziko eskalako, azpieskala Teknikoa eta Teknikari Laguntzaileen klasekoa.

D) Gainera, 2023ko langile-plantilarekin alderatuz, honako aldaketak eman dira:

— Garbitzaile bat: Plaza ezabatu egin da (iraungitzera deitua zegoen).

